



Hezkuntzan ere Librezaile taldea Euskal Herriko hainbat guraso, irakasle, ikasle eta eragilek sortu genuen 2017an, enpresa pribatu erraldoiek gure eskoletako digitalizazio prozesuetan zeukaten presentzia gero eta handiagoak kezkatuta.

Gaur egun, Euskal Herri osoko, sare publiko eta kontzertatuko, 200 pertsona baino gehiagok osatzen dugu talde hau.

Jakin dugunez, Eusko Jaurlaritzak Google-n eta Microsoft-en esku utziko ditu EAEko milaka ikasleren identitate digitalak. Hezkuntzako beste esparruetan ere egoera antzekoa da, Iparraldean, Nafarroan edo Ikastolen Elkartean besteak beste. Bestalde, Chromebook-en hedapena ikastetxeetan gero eta zabalagoa da, askotan erakundeek beraiek bultzatuta.

Euskal hezkuntzaren egoera kontutan hartuta, gure kezkak azaltzeko adierazpen hau kaleratu dugu *Hezkuntzan ere Librezaile* taldetik:

- 1 Gure ikasleen datuak enpresa pribatuen esku uzteak ikasleon **pribatutasunaren bermatzea** ezinezko egiten du. Entitate publikoek bultzatuta gure ikasleak produktu bilakatzeak inplikazio larriak ditu.
- 2 Bost urteko bizitza bakarrik bermatzen duten Chromebook gailuetan inbertsioa egitea arduragabekeria da, **zaharkitzapen programatua** berrerabilpenaren kontra baitoa.
- 3 Gure ikasleek erabiliko duten gailuetan **euskararen presentzia** enpresa pribatuen interes eta gidalerroen menpe uztea gure hezkuntzaren kontrako erabakia da. Are eta gehiago, Chromebook gailuetan, gaur egun, hainbat atal ez daude euskaraz.
- 4 Ikasleak behin eta berriro tresna berdinen erabilerara mugatzea, **hezkuntza digitalaren murriztea** da. Gaitasun digitala, Europa eta Euskal Herriko hezkuntza legeen arabera, ikasleek lortu beharreko oinarrizko gaitasuna da, eta tresna horietara mugatzeak ez du inola ere hau bermatzen.
- 5 Hezkuntza komunitatearengan **tresna hauekiko dependentzia** sortzeko arriskua arazo larria da. Enpresa pribatuen produktuen erabiltzaile eta bezero potentzialak sortzen ari gara, instituzioek bultzatuta.

Arrazoi hauek guztiak kontuan hartuta eztabaida prozesu bat bultzatzeko unea iritsi dela uste dugu. Software librean bezala, jakintza kolektiboa eta estandar libreak bultzatzen dituzten alternatibak egon badaude, eta momentua da digitalizazio zentzudun, jasangarri eta arduratsu baten alde egiteko.

Administrazioari dei egin nahi diogu digitalizazio prozesuan gidaritza eta laguntza teknikoa egin dezan, azpiegitura libre, jasangarri eta ahaldunduko gaituena ezartzeko; eta ez dezan soluzio komertzial interesatu baten esku utzi gure ikasle hezkuntza digitala.